

# «Itxaro Bordaren poema hautatuak itzulgai» lantegiaren historia

---

MANU LÓPEZ GASENI

«Idazlea itzultzaileen lantegian» bigarren urtez Euskadiko Literatura Saritik aske antolatzeko garaia iritsi zenean, behiala baino zeregin bat gehiago genuela ikusi genuen: idazlea aukeratzea. Eta iaz Karlos Linazasoro hartaratu genuen arte ibilitako bidea berribiltzen hasi ginen. Zenbat arazo ematen dituen askatasunak! Ohartu ginen poesia behin ere landu gabe genuela, eta hura izan zitekeela bide bat. Emakume idazlerik ere ez zela guretik pasatu jabetu ginen gero, eta hara beste hari bat. Iparralde deitzen dugun lurralde horretako jenderik ere inoiz ekarri gabekoak ginela ikusi genuen hurrena, eta horratx hurrengo izpia. Protagonista lesbiana bat duten detektibe nobelak «kometitzen» dituen iparraldeko emakume poetarik ere inoiz ez da gure lantegitik pasatu, eta, azkenean, hitzetik hortzera etorri zitzaigun hasieratik beretik buruan izan genuen izena: Itxaro Borda. Idatzi genion, ezetz esango zigun beldurrez, baina astro-elkartzeak alde genituen eta baietz erantzun zigun («ahal baldin badut –lanarengatik– eskatzen didaten edozer izkiriartzen dut, eskatzailea edozein dela» delako esaldia baionar idazlearen apaltasun-eskuzabaltasun erakusgarria besterik ez da).

Poesia nahi genuenez gero, eta lantegia bideratzeko ardura hartuta, Itxaroren obra birpasatu nuen, noiz nostalgiaz, noiz uste-kabez, bi aldiz ibai bera ikustea ezinezkoa izatea ez baitzaio beti ibaiaren mudantza-abileziari egotzi behar, begiralearen begiek une bakoitzean duten zorroztasuna kontuan izan gabe. Gainera, lante-

gia gogoan, aukeratzeko irizpideek arau berezi batzuk bete behar zituztela iruditu zitzaidanez, lehentasunak eta zaletasunak uztartu nituen. Ez zen batere zaila izan (aukeraketa-mahai gaitzagoetan egona naiz, zinez). Azkenean, askotariko asmo eta luzerako bederatzi poema aletu nituen: «Gu», «Milia Lastur revisited», «Merguez blues», *Oraindik nabil Du Bellay plazan*, «Ardura dorpea», «Elurra egin zuen...», *Munduko maleruseña...*, *Neguaren hegaletan...* eta «La porta oberta en el cel, i això». Iturriak, berriz, *Bizitza nola badoan* (Maiatz, 1984), *Bestaldean* (Susa, 1991) eta *XX. mendeko poesia kaierak*. *Itxaro Borda* (Susa, 2000) izan ziren.

Hizkuntzak eta itzultzaileak aukeratzea izan zen hurrengo zeregina: aurreko urtean abiatutako tradizio txoari jarraituz, idazleari berari frantseserako autoitzulpena egin zezan eskatu genion; frantsesezko beste itzulpen bat behar genuen, harekin kontrastatzeko, eta Haizea Parot ados egon zen. Aukeratutako beste hiru hizkuntzak galegoa, katalana eta gaztelania izan ziren, eta horretan aritu ginen Isaac Xubín, Pau Joan Hernández eta Manu López, hurrenez hurren.

Eta iritsi zen 2010eko irailaren 7a. Aurkezpenak egin genituen eta, harako hura ispiluaren bestaldera bezala, hala barneratu ginen Itxaro Bordaren poemen mundura.

Poemak banan-bana landu genituen eta, bakoitzarekin hasi aurretik, idatzia izan zeneko testuingurua ematen zigun Itxarok; izan ere, esan zuen legez, bere ustez, poemak argazkien parekoak dira.

«Gu» 1984an idatzi zuen eta klase borroka, gehiengoak eta guttiengoak hartzen zuen hizpide. Beste gai batzuen artean, bat aipatu zuen: badela euskal klase bat, apaizez eta notableez osatua, gainontzeko euskaldunak zigortzen omen dituen «egiazko euskeran» ez mintzatzeagatik.

«Milia Lastur revisited», berriz, «Milia Lastur» eresia ezaguneko elementu zenbaiten berziklapena da. Hitanoa erabili zuenez gero, itzulpenetan informazioa galtzen dela dio, eta berak egindako

itzulpenean frantses entzuleen beharretara moldatu dituela hainbat gauza.

«Merguez blues» delakoa maiatzaren 1eko ospakizunaz aritzen da eta Parisen kokatua dago. Manifestazioaren ibilbidean, Bastille eta Republique artean, alboetan jartzen diren merguez saltzaileek eman diote izena poemari.

*Oraindik nabil Du Bellay plazan* izeneko poema *Bestaldean* bildumakoa da, titulurik ez du ordena alfabetikoan idatzitako poemak biltzen zituelako. Parisen idatzia. Hizkuntza-eldarniotzat definitzen du: puntuaziorik gabe, ideiak bata bestearen atzetik jarrita burura zetozen bezala. Plaza Paris erdian dago, Les Halles-en. Du Bellay, berriz, XVI. mendeko frantses idazlea izan zen, lehena frantsesez idazten, Etxepareren parekoa beraz. Baliatzen duen zazpi lerroko ahapaldia berria da, Itxarok berak sortua.

«Ardura dorpea» Zuberoan idatzia da, bost urtez Mauleko ikastolan arduradun ibili zen garaian, eraikin berria egiteko aha-legendetan. Orduan, idaztea, militantziaren eraginez, derrigorrez bereganatu behar zuen ardura zen.

*Elurra egin zuen...* izeneko poema ordena alfabetikoan idatzitako poemak bildumakoa da. Parisen elurra egin zuen goiz batez idatzia, Baionarako lan-lekualdatzearen berri idatzi jaso berritan. Orduan hasi omen zen artean utzi gabeko hiriarekiko nostalgia.

*Munduko malerusena...* ordena alfabetikoko bilduma hartakoa da, orobat Parisen idatzia. Amaia Lasaren poema baten oihartzuna da, omenaldi moduko bat.

*Neguaren hegaletan...* ere *Bestaldean* liburukoa da. Seaska kantu bat da eta bi aldiz iza da musikatua.

«La porta oberta en el cel, i això» Iparraldeko militarizazioaz aritzen da, batetik GAL taldeak, bestetik frantses polizia Philippe Bidart-en bila zebilen... Egoera itogarri hartan, Itxarok Hegoaldean bilatzen zuen babesa, *Basilika* idazten ari zen bitartean. Poema Bartzelonan amaitu zuen, eta katalana ikasteko erosi zuen ebanjelio batetik hartu zuen izenburua.

Itzultzaile bakoitzak lantegian adierazitakoen arabera eta egindako itzulpenetatik ateratakoak ikusirik, joera nagusi eta ondorio oso orokor batzuk ateratzen saiatuko naiz. Denak ez dira begien bistakoak, lantegiko eztabaiden ondorioz itzulpenek nolabaiteko konbergentzia izan zutelako.

Frantsesera egindako bi bertsioren artean, nabari da Itxarok askatasun gehiago hartzen duela, libreago itzultzen duela. Itxarok baliagarri jotzen du itzulpenak jatorrizkoari egiten dion ekarpena eta, gainera, poema batzuk errezitaldietan frogatuak zituen; eskarmentua du, beraz, entzuleen beharretara egokitzen. Haizea Parot itzultzaile gazteak lehenengoz egiten zion aurre poemak itzultzeari, eta sen handiz zehaztasunaren bidetik jo du, oso baliokidetzat doituak sortuz.

Galegozko bertsiotan, oro har, jatorrizkoen pareko emaitzak lortu ditu «poetikotasunaren» aldetik, batez ere erritmoaren eta aliterazioen alorretan. Adibide bat jartzearen, *Neguaeren hegaletan...* seaska kantua bikain itzulita dago aipatutako alderdiei dagokienez.

Katalanezko bertsiota, berriz, komunikatibotzat jo daiteke: gehiago heltzen dio jatorrizkoaren esanahiari eta poetikotasunari uko egiten ez badio ere, zertxobait galtzen duelakoan nago azalpeneko gehikuntzak egiteko joeragatik.

Gaztelaniazko itzulpena epaitzeko ez naiz egokiena. Esan dezadan hautaketako bi sonetoak («Gu» eta «Milia Lastur revisited») neurtitzetan eta errimatuak ematen saiatu naizela. Euskal bertsioren trinkotasunari aurre egiteko, berriz, hamaika silabako lerroaren ordeztu alexandrino deiturikoa baliatu dut, silabaren baten gora behera, gaztelaniaz arnasa luzeagoa eman ahal izateko. Horrelako esperimentu batean, dudarik ez da, informazioa galtzen da eta itxura zurruna ezartzen zaio poemari. Hala ere, jatorrizkoen sor-kuntza prozesuetan antzeko zerbaitez gertatzen delakoan nago.

Bertsokerak errespetatzen saiatu gara itzultzaileok, baina, Itxaro zangalatrau zalea izanik, horrelakoetan nork bere interpretazioa egin du.

Hiperbatoien tratamenduan, berriz, askotariko joerak ikus daitezke, euskararen eta beste erromantzeen egitura sintaktikoak muturrekoak direla jakinda ere. Horri eransten badiogu Itxaro Bordak zenbaitetan erabilitako alboratzea, itzultzaileok zailtasunak izan ditugu aldaera batzuk emateko orduan. Adibide gisa, *Oraindik nabil Du Bellay plazan* poemako azken ahapaldia har daiteke:

eta Du Bellay plazan ausartzen banintza  
hauts arina bilakatzeko gogo handituko  
litzaidake, goizetako argitasun ahuletan  
haizeak nezan eraman otoitza otoitz den  
eremuaren biluziraino, urrikal zakizkigu  
belarrak usantsu zoratzen diren zelaiak  
kukuaren kantuaz lorios entzun ditzadan

(ITXARO – autoitzulpena)

Et si j'osais, sur la place Du Bellay, grandirait  
En moi le désir de me changer en cendre légère  
Qu'aux matins de faibles lueurs le vent emporte  
Jusqu'à la nudité du lieu où la prière est prière,  
Prends pitié de nous, que j'entende enfin  
Le bonheur des plaines aux herbes parfumées,  
Rendues folles par le chant du coucou.

(HAIZEA PAROT)

et si je me risquais, sur la place Du Bellay  
mon envie grandirait de devenir fine poussière,  
pour qu'aux faibles lueurs de l'aube le vent m'emporte  
jusqu'à l'étendue nue où la prière est prière,  
aie pitié de nous que j'entende le bonheur  
au chant du coucou les plaines éperdues  
du parfum des herbes

(ISAAC XUBÍN)

e se me afoutase a alonxarme da praza Du Bellay  
medraría o degoxo de me transformar  
en fino po, e que o vento me levase  
nas ás da alborada cara ao deserto nu  
onde a pregaria é pregaria, compadécete de nós  
para eu poder escoitar o campo alegre  
que tolea coas herbas recedentes co canto do cuco

(PAU JOAN HERNÁNDEZ)

I si gosés d'allunyar-me de la plaça Du Bellay  
més creixería el desig de convertir-me en pols lleugera,  
perquè en la llum pà·l·lida de l'alba el vent se m'emportés  
fins a l'erm més despullat, on la pregària es fa pregària,  
tingueu pietat de nosaltres, per poder escoltar  
com embogeixen els camps amb les herbes aromàtiques  
acompanyats pel cant del cucut.

(MANU LÓPEZ)

y si me aventurara a alejarme de la plaza Du Bellay  
crecería mi deseo de convertirme en polvo  
leve, para que con la débil luz de la mañana  
el viento me llevase al territorio desnudo  
donde la plegaria es plegaria, apiádate de nosotros  
para que escuche los campos que enloquecen dichosos  
con las hierbas aromáticas acompañados del canto del cuco

Kultura-baliokidetzak emateko modua ezinbesteko atala izaten da lantegiaren deskribapenetan. Horietako asko nola eman erabakitzeo, askotan Itxaroren azalpen argigarriak behar izan genituen. Batzuk aipatuko ditugu hemen.

Lehenengoan bi arazo elkartzen dira: batetik aditzaren elipsia eta bestetik «herri» hitz polisemikoaren esanahi zehatza, kasu

bakoitzean. «Merguez blues» poemako hiru lerro dira: «erresistentzian sartuak ginelako irudipena / justizia nahia / noiz herrirako?». Itxarori esker «jaioterri» esanahiarekin erabili zuela jakin genuen, eta hala eman dugu. Beste arazoa esan gabe dagoen aditza da, ematen baitzuen justiziaz ari zela, baina ez omen zen hala. Gauzak horrela, Itxarok honela eman zuen: «Nous pensions être entrées en résistance / soif de justice / a quand le retour au pays?»; Haizeak, honela: «Nous voyant entrés en résistance / soif de justice / retour au pays?»; hona hemen Isaac-en bertsoia: «a ilusión de entrar na resistencia / o desexo de xustiza / cando volveremos á aldea?»; Pau Joan-ek: «la il·lusió de la nostra resistència / l'ansia de justícia / quan tornarem a casa?»; eta Manuk, azkenik: «la ilusión de formar parte de la resistencia / clamor de justicia / ¿cuándo regresaremos a casa?». Ikusten denez, Haizea izan da elipsiari men egin dion bakarra.

«Herri» hitzaren esanahi arazoa «La porta oberta en el cel, i això» poeman topatu genuen berriro. Izan ere, «euskal herri barnean» delakoan, «Iparraldeko barne aldea» esan nahi da, kostaldea ez dela, alegia.

«Milia Lastur revisited» poeman eresiako «ardao gorria» aipatzen da, diotenez odolaren metafora gisa. Nola eman, orde? Hara: «vin écarlate» (Itxarok), «vin rouge» (Haizeak), «viño vermello», «vi roig» eta «vino rojo». Bistan denez, ez datoz guztiz bat enologo eta enparauen sailkapenarekin.

«Ardura dorpea» izeneko poeman, berriz, mintzairaz ari dela, «maiz adiztegi antzu» dela dio poetak. Bada, Itxaroren esanetan, «adiztegi» zentzu etimologikoan aukeratu zuen, «conjugaison» adierazi nahian, alegia. Baina itzultzaile guztiek ez dute zentzu hori errespetatu: «souvent grammaire stérile» (Haizeak) eta «decote gramática erma» (Isaac-ek).

*Neguaeren hegaletan...* seaska kantuan bada haur hizkerako esapide berezi bat, «ninano bubak darama», hain zuzen ere, Haizeak hasieratik ulertu zuena baina besteok zertxobait zoratu gintuena. Hona azken emaitza: «dodo emmène bébé» (Itxarok), «dodo

porte bébé» (Haizeak), «o sono transporta o meniño», «nin-non et durà la son», «el sueño conduce al niño».

Aipatuko dudan azken kultura-baliokidetza «la porta oberta en el cel, i això» poemakoa da. Azken atalean «kaiioletan salgai dauden / txori exotikoen / ikustera naramazu» esaten da. Bartzelonako Rambletako eszena bat omen denez, Pau Joan-ek azaldu zigun kiosko moduko batzuetan jartzen direla txoriak salgai (eta berehala topatu zigun horren argazkia interneten). Azkenean, hona hemen itzulpenak: «tu m'emmènes voir / les oiseaux exotiques / en vente dans leurs cages» (Itxarok), «tu m'amènes voir / des oiseaux exotiques / vendus en cage» (Haizeak), «lévasme a ver / os paxaros exóticos / que están á venda nas gaiolas», «em duus a veure / gàbies d'ocells exòtics / posats a vendre», «me llevas a ver / los pájaros exóticos / a la venta en sus jaulas».

Irakurleak ondorio gehiago (edo desberdinak) atera ditzake poema guztiak irakurri eta konparatuta. Nire aldetik, hemen amaitzen da uda amaierako lantegi izeneko lagunarte eder haren kontakizuna.